

ELGOIBAR - 971. zenb. XXIII urtea - 2015-11-20

BARREN

TOKIKOM

# Mende erdi bandan

Luis Mari Zubiaurre Lodoso

## Oraindik zabalik dago Elgoibarko Izarrako
## TONBOLARAKO ERREGALUAK EMATEKO AUKERA

### *Azaroaren 30ean itxiko dugu opariak jasotzeko epea!*

Asko zarete dagoeneko **TONBOLARAKO ERREGALUAK** eman dituzuenok (beheko zerrendan), baina zenbat eta opari gehiago jaso, orduan eta tonbola aberatsagoa osatuko dugu. Orduan eta opari gehiago izango dugu elgoibartarren artean banatzeko. Erregaluren bat eman nahi duzuenok deitu 943 741 626 telefonora.

*Eskerrik asko!*

*Alcorta F.G / Aldaz hortz klinika / Alire estetika / Altzola Berazeta baserria / Amagoia goxo-denda / Amaia fruta-denda / Ametsa kafetegia / Andres Alberdi / Angel Ugarteburu / Antxustegi Zeramikak / Apraiz parafarmazia / Arantza eta Marian fruta-denda / Arauri lurrindegia / Arkupe okindegia / Armueta harategia / Astigarra kirolak / Azkue argazki-denda / Beitia Arriola fisioterapia / Beitia Arriola hortz-klinika / Belaustegi jatetxea / Beristain logistika banaketa / BM supermerkatuak / Caramel gozoki-denda / C.D. Elgoibar / Danele Sarriugarte / Dantza.eus / Domiko harategia / Doña Mercedes okindegia / Ecenarro mertzeria / Egur arte-tailerra / Eizagirre okindegia / Euskadiko Kutxa / Fotero okindegia / Gabi jatetxea / Gautxo jatetxea / Hair´s ileapaindegia / Haritz euskal dantza taldea / Hondarribi arraun elkartea / Ibai-Ondo erretegia / Iban Urizar / Ikastola / Ikus optika / Iñigo Lariz / Irati Agirreazaldegi / Irudi argazki-denda / Iriondo altzariak / Isleder (Enara Gorostiza) / Iturri taberna / Jai-alai taberna / Jasone Osoro / Jesus Mari Makazaga / Jon Gurrutxaga / Jone Aliri / Jose Antonio ileapaindegia / Kalamua Guraso Elkartea / Karkizano mertzeria / Kiroldegiko taberna / Lagun Txirrindulari taldea / Lanbroa taberna / Leigar elektrodomestikoak / Luvik oinetakoak / Mª Angeles fruta-denda / Mahats ardandegia / Maite Maiora / Maite Rementeria / Mapfre aseguroak / Mari harategia / Markel Bergara / Mekanosa / Morkaiko mendizale elkartea / Muruamendiaraz gozotegia / Napoka Iria / Oin-Berri podologia zentroa / Orbea Taberna / Osoka dekorazioa / Otzak kafetegia / Pepi eta Mila fruta-denda / Pitxintxu / Sahatzu harategia / Sara jantzi-denda / Sinuose / Sugar gozotegia / Txarriduna jatetxea / Txomin Mujika / Usua kafetegia / Uxue Alberdi / Uzuri optika / Viento Sur gastroteka / Yudego farmazia / Zaloa Arnaiz / Ziarda harategia / Zero Zabor Ingurumen Babeserako elkartea / Zuhaitz Gurrutxaga / ...*







ARKAITZ IRURETA ARRIETA

## *"Euskeria glamourrez bizi dabeneri esker mantenduko dala sinistuta nago"*

Elkarrekin sarritan hitz egin izan dogu euskariaren *glamourraz* eta abenduaren 3a gainian egonik, gogoeta bota nahi nizuke. Elgoibarren euskaldunon artian ez da oso *chic* euskeraz hitz egittia. Gazteleraz hitz egitteko joeria nerabezaruan hasi eta askorentzat txakur edo umiekin hitz egittera mugatzen da ondoren.

Ez dot *summum pirineus* aurkittu hau esatiarren, aspalditik jakiña da hori egitten dogula.

Baiña gaurkuan beste aldia erakutsi nahi nizuke, etorkiñek euskeriari egin diuen ekarpena.

Euskaldun eta euskaltzale bezela ikusten zaittut nik, Ibon. Akaso hori ez da zure lorpena bakarrik, jaso dozun oinordekotziak ere izango dau zerikusixa.

Zuhaitz genealogikua egitten ari zerala kontatu didazu aspaldixan, eta lehenengo abizenaren jatorrixaren atzetik lekutara juaten ari zerala. Nik bi kontu hauek lotu nahi nittuzke gaurkuan.

Euskaldun berrixen artian entzun izan dot "euskaldun zahar" kontzeptua, eta koloriak atara arazi dizkidate kontu horrekin. Guk, euskaldun zaharrok, batere esfortzurik gabe jaso dogun altxor horren jabe izan arren, gutxiesten dogula bota didate aurpegira, gure artian gazteleraz hitz egitten dogulako. Arrazoi osua!

Aldiz, etxian ama hizkuntza beste bat izan, eta askotan beste herri bateko hizkuntzak eta kulturak mantendu arren, hemengo kultura eta ohiturak errespetatu, ikasi eta seme-alaben artian bultzatu dittuztenak goraipatu nahi nittuzke gaurkuan. Seme-alaba hauek, esfortzu askorekin ikasi dabe euskeria, eta hauentzat *glamourra* hizkuntza berri hori menperatzia izan da, bere egin daben hizkuntzia, euskeria dalako euskaldun egiten gaittuana.

Beraz, Euskara *glamourrez* bizi dabeneri esker mantenduko dala sinistuta nago




IBON SERRANO LASA

## *"Zerbait baginen, bagara eta izango bagara, gure hizkuntza da bizkarrezur"*

Zuhaitza baino oihana dirudi nireak, lehenengo abizenaren jatorria aurkitu nahian makaleko zurrunbilo artxibistiko-historikoan sartu bainaiz. Pasioz bizi dudan ikerketa hau bukatzeke, zenbait aurrerapen: nire *pedigree*-aren %97,3 euskotarra bada ere (lapurtar adaxkaz loratua); gorputz *serrano* honi gatz eta piperra ematen dion gainontzeko %2,7 berriz nola-halako *mélange*-a: gaztelar, galiziar, aragoiar eta bretoia! ...tori-tzank! (Gipuzkoan XVIII. mendean untzigintzara loturiko militarrak omen).

Beraz, gutxi-gutxigatik, baina ezin esan mohikano guztiz garbia naizenik. Kontu, Arkaitz, agian zure inguxetiar antza ez baita ausazkoa, EHa herri anitzen pasabide izan baita.

Euskaldunok nolabaiteko joera izanik gure izana Rh(-)an oinarritzeko, nire aurkikuntzek alde batetik, eta gizartea mohikano baino mejikano bilakatzen ari dela ohartzeak bestetik, zer pentsa eman dit. Alegia, zerbait baginen, bagara eta izango bagara gure hizkuntza dela bizkarrezur.

Baina nola erakarri euskarara gizarte *multipluritrans* honetako mejikano berriak?

Egungo *leitmotiv*-a gozamena, alaitasuna eta *poziktibismoa* dirudite. Horien beharra ere onartuaz, ez direla aski esango nuke, are gehiago, ahulezia diglosiko baten seinale ere badira (...dena den Lipdubean kanta beharko).

Ez al dugu bada militantzia ukituaz gehiegitxo hustu motibazio mezua?

Ez gaitezen engaina: ni behintzat naturalki lehen hitza euskaraz egitera heldu banaiz (eta ez beti) ahalegin kontziente bat egon delako izan da.

Badaude niri funtzionatu izan didaten formulak: kateari eustea, arbasoekiko begirunea, gertukoenganako eredu izan nahia, euskaldun-berriekiko miresmena, errebeldia, estetika, erromantizismoa, konexio izpirituala, gure historia ezagutze nahia...

...ez dakit, baina agian *demodé* dirudien ideia multzo honen zaharberritze eta indartzeak ez gintuzke apur bat gehiago ahaldunduko?



ENETZ EZENARRO

Matematika irakaslea EHUn

# Hilberten hotela

Munduko hotelik haundixena egin nahixan hotel infinitu bat egin zaban behin Hilbert izeneko haundiki batek, zenbakixak adiña logela zauzkana. Kontua da hotel haura beteta zaguan batian bezero berri bat etorri zala. Edozein hotel arruntetan lekurik ez zala esango ziuen bezero berrixari, baina, hotel honetan ez. Hoteleko bezero guztiak logelaz aldatu zittuen: bakoitza hurrengora (lehenengokua bigarrenera, bigarrenekua hirugarrenera…) eta hola lehenengo gelia eman jakon etorri-berrixari.

Handik lasterrera autobus infinitu bat iritsi zan infinitu bezero berrirekin hotel haretara, eta hotela, jakiña, beteta. Bada, orduan ere asmatu zaben zer egin. Berriz ere hotelian zeuden bezero guztiak logelaz aldatu zittuen: bakoitza bere gela zenbakixan bikoitzera (lehenengokua bigarrenera, bigarrenekua laugarrenera…). Era honetan gela bakoitixak libre geratu ziran eta han sartu zittuen etorri berrixak.

> *"Munduko hotelik haundixena egin nahixan hotel infinitu bat egin zaban behin Hilbert izeneko haundiki batek, zenbakixak adiña logela zauzkan"*

Ez uste izan hor amaitzen danik kontua. Mundu zelebre haretan, opor gose haundixa egon zan. Hor presentatzen dirala iñungo abisurik eman gabe infinitu autobus infinitu. Haura zan illeria hotelan atarixan! Haundikixak, baina, matematika piska bat jakin eta hala agindu zion harrerako langilliari: "Bizkor, sartu hotelian dauden bezero guztiak 2 zenbakixan potentziak diran geletan (2, 4, 8, 16, 32…). Hortik aurrera, autobus bakoitzari 2xa ez dan zenbaki lehen bat egokittu (3, 5, 7, 11,…) eta autobus bakoitzeko bezeruak, autobus horri dagokixon zenbaki lehenan potentziei dagokixen logeletan sartu (lehenengo autobusekuak: 3, 9, 27, 81… geletan, eta hola)". Modu honetan bezero guztiak hartu ez ezik hoteleko gela asko eta asko libre geratu ziran. Badakizue zenbat?

BARREN

**Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR - 943 744 112 - *barren@elgoibarkoizarra.eus***
***www.barren.eus***
**Publizitatea: 943 743 704 - *barren.publi@elgoibarkoizarra.eus***

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENek ez du bere gain hartzen Iritzia, Zozoak Beleari eta eskutitzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. KOORDINATZAILEA Oier Narbaiza KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Irati Agirreazaldegi, Oier Narbaiza HIZKUNTZA ARDURADUNA Oier Narbaiza PUBLIZITATEA Leire Rubio, Leire Alberdi MAKETATZAILEA Zaloa Arnaiz ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA Aitor Lauzirika ADMINISTRARIAK Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro KOLABORATZAILEAK Garazi Ayesta, Nora Hadi, Ibon Serrano, Arkaitz Irureta, Nora Kortaberria, Nerea Gurrutxaga, Andoitz Agirregomezkorta, Abel Arriaga, Inma Mugertza, Ander Izagirre, Ana Alberdi, Eneko Iturbe, Javi Muñoz, Rafa Furnier, Eire Vila, Mikel Olaizola, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansola, Eider Iriondo, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Enetz Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Mujika, Ander Soraluze. INPRIMATEGIA Gertu Koop.E. TIRADA 4.860 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA

LAGUNTZAILEAK:

elgoibar

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

*Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua*

BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: *barren@elgoibarkoizarra.eus*

## LIBRE NAHI ZAITUGU, ZAITUZTEGU

Zorionak Sebas!!! Zuri, askatasun haizeari. Abesti eder hau Ken 7-ri zuretzat laputu diogu:

*Txikitatik entzuten*
*zer izan behar garen*
*indarrez inposatuz*
*zer maitatu behar den*
*baina kantatu nahi dut zapalduen olerkia*
*estalita duten*
*samin guztia*
*lagun minei bakardadeari bizigabe utzitako*
*une bakoitzari*
*izan zirenei*
*gaur gareneri*
*izango direnei*
*Istripuei*
*berri txarrei*
*bidean galdu ditugun lagun guztiei*
*gugatik dena eman dutenei askatasun haizeari*
*zuei*
*haizeari*
*zuei, zuei, zuei.*

Laster arte! 28an Villabonan ikusiko garelakoan. Besarkada bat!

**Larra, Patxi eta Edurne**

## FILMAK ETA EUSKARA

Lehendabizi, Elgoibarko Udalak barkamena eskatu nahi du *The house of magic* filma gaztelaniaz emateagatik.

Hasiera-hasieratik, Udalaren nahia izan zen film hori euskaraz eskaintzea. Horrela iragarri zen Udalaren agendan eta hedabideetan, eta asmoa ere horixe zen.

Baina, akats teknikoak eta giza akatsak tarteko, ezinezkoa izan zen hori egitea, eta tamalez, filma gaztelaniaz eman zen, gure borondatearen aurka.

Udalak jakin badaki Elgoibar herri euskalduna dela, eta herritar askok euskaraz bizi nahi duela. Hori horrela izanik, Elgoibarko Udalaren zeregina eta nahia da, hala nahi duten herritar guztiei, horretarako aukerak eskaintzea, Elgoibarko Udalak ere euskaraz bizi nahi baitu.

Horrexegatik, besteak beste, Elgoibarko Udalaren xedea da haur eta gazteentzako kultur eskaintzan euskararen erabilera bermatzea. Hala, euskaraz kaleratzen diren umeentzako film guztiak ekartzen ditu herrira, eta haurrei zuzendutako ikuskizun eszeniko guztiak euskaraz izan ohi dira. Hala eta guztiz ere, horiek guk nahiko genukeena baino gutxiago dira; izan ere, oraindik, asko dago egiteko euskarazko eta gaztelaniazko kultur ekoizpenak maila berean jar daitezen.

Bukatzeko, Udalak adierazi nahi du aurrerantzean lanean jarraituko duela *The house of magic* filmarekin gertatutakoa berriro pasa ez dadin.

**Elgoibarko Udaleko Kultura eta Euskara sailak**

basquestay
www.basquestay.com
info@basquestay.com
606 747 756
Apartamentu baten jabe bazara, alokatu eta diru iturri bilakatu



MEKANOSA
Errosario, 27
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
★ MULTIKOPISTAK
★ FOTOKOPIADORAK
★ ERLOJU INDUSTRIALAK
★ MARRAZKETA MATERIALA
★ INFORMATIKA
★ FAX

CORDON VILARCHAO
San Roke, 7 behea
Pol. Olaso - Olasope kalea, 18 - 25 eta 26 moduloa
Tel. 943 740 570

DEKORAZIOA
Kanpo eta barneko estaldura
Zoluak ezartzea
Lakadura egur, aluminio, P.V.C.
Pintura orokorra

# Elikagai bilketa erraldoian boluntario aritzeko dei egin diete elgoibartarrei




Elgoibarko Gizarteratze Mahaia elikagai bilketa erraldoia prestatzen ari da datorren asteburuko. Azaroaren 27an eta 28an, hainbat saltokitan elikagaiak emateko aukera izango dute herritarrek eta parte hartzeko deia zabaldu dute elgoibartarren artean. Ekimena ganoraz bideratzeko, boluntarioak behar dituztela jakinarazi dute. Ahalik eta azkarren, Udaleko Gizarte Ongizate Sailera deitzeko eskatu dute (943 741 008), erakunde horrek koordinatuko baitu Elgoibarko elikagaien bilketa.

"Boluntarioen laguntza ezinbestekoa da; izan ere kanpainaren arrakasta hertsiki lotuta dago saltoki eta ordutegi guztiei aurre egin ahal izateko behar diren boluntarioen kopuruarekin", jakinarazi du Elgoibarko Gizarteratze Mahaiak. Herriko talde eta erakunde mordo batek indarrak batu dituzte eta Gizarteratze Mahaia osatu dute: Sartu, Lanbide, Nagusilan, Kalamua Guraso Elkartea, Elgoibarko Caritas, Pobreziaren Kontrako Plataforma, Stop Desahucios, Elgoibarko Gurutze Gorria, Elgoibarko Gazte Asanblada eta Elgoibarko Udala.

Elikagai bilketa erraldoia antolatu du Gipuzkoako Elikagaien Bankuak, hirugarren urtez jarraian. Elgoibarren txandak antolatuko dituzte, bi egunetan, 09:00etatik 21:00etara arteko ordutegi etengabea betetzeko. Txanda egiteko ordutegiak eta saltokiak boluntario kopuruaren arabera zehaztuko dituzte.

## 200 familientzako laguntza

Elgoibarren jasotako elikagaiak Gipuzkoako Elikagai Bankuak Bergaran duen egoitzara eramango dituzte. Gero, gure zonaldean beharra duen familien artean banatuko da bildutakoa. Elikagai Bankura jotzen duten familien kopuruak goranzko joera du. Urtetik urtera pertsona gehiagorengan iristeko beharra dago. Elgoibarren, 200 familia inguru izan ziren elikagaiak Gipuzkoako Elikagai Bankutik jaso zituztenak 2014an. Batutako elikagai kopuruak ere gora egin du: 2013an 6.565 kilo elikagai bildu zituzten eta 9.980 kilo elikagai 2014an. Gipuzkoan 350.000 kilo batu zituzten orain bi urte eta 575.000 kilo iaz.

# Palestinako umeei materiala emateko kanpaina hasiko da

Pablo Garrido elgoibartarrak Gaza eta Zisjordania bisitatzeko asmoa du abenduan, CAPP Gobernuz Kanpoko Erakundearekin batera Palestinara egingo duen bidaian. Hango umeek behar dituzten materialak jasotzeari ekingo dio (arropak eta eskolako materiala), Palestinan bertan eskura emateko. Bihar (azaroak 21) eta hurrengo bi zapatuetan, Maalako parkean izango da materiala jasotzen 11:00etatik 13:00etara. Bide batez, Palestinako herriarekiko elkartasuna erakusteko argazkiak jarriko eta bideoak proiektatuko ditu.

Zisjordaniako umezurztegi bat bisitatuko du. Gero handik Gazara abiatuko da. Palestinarrek bizi duten egoera zailari aurre egiteko, elkartasuna garrantzitsua da bere iritziz. Horregatik, materialen bilketan parte hartzeko eskatu diete elgoibartarrei.




# Mugikortasun iraunkorraren astea, azaroaren 21etik 29ra

Kaleak oinezkoentzat berreskuratzeko asmoz, mugikortasun iraunkorraren astea antolatu du Udalak hilaren 21etik 29rako. Helburua da erdiguneko kaleetan auto pribatuak gutxitzea. Iaz bezala, aste osoan itxita egongo dira uneoro San Frantzisko, San Bartolome, Errosario eta Santa Ana kaleak motordun, anbulantziak eta garajeetako ibilgailuentzat izan ezik. Asteburu honetan eta hurengoan Maalako zubitik Ermuaranbideko errotondarainoko bidea itxi egingo da motordun ibilgailuentzat.

Honen inguruko ekitaldien ordutegi eta argibide batzuk, 20. orrialdeko agendan.

# Parisko atentatuak salatzeko kontzentrazioa egin zuten astelehenean



Elgoibarko Udalak deituta, Parisko atentatuak salatzeko kontzentrazioa egin zuten astelehen eguerdian. Udaleko alderdi politikoetako ordezkariez gain, hainbat herritar ere batu ziren protestaldira. Aurreko barixakuan Parisen egindako erasoak gaitzesteko eta biktimei eta haien familiei elkartasuna adierazteko bost minutuko protesta bilkura isila egin zuten.

# Zinkunegiri elkartasuna erakutsi diote bere kontrako epaiketaren bezperetan




Hainbat herritarrek elkartasuna helarazi zioten Joseba Zinkunegi elgoibartarrari aurreko asteburuan. Auzitegi Nazionalak abenduaren 3an epaituko du beste 34 pertsonarekin batera, ezker abertzaleko buruzagitzako kide izatea leporatuta eta hamarna urteko kartzela zigorra eskatzen du haientzat. Karakateko igoeran parte hartu zuten hainbat korrikalarik ere babesa agertu zioten.

## Adineko presoak aske uzteko eskatuko du Sarek Etxanizen urtebetetzean

Sebas Etxaniz preso elgoibartarrak 72 urte egingo ditu datorren ostiralean, hilaren 27an. Elgoibarko Sare kezkatuta azaldu da Villabonako (Asturias) kartzelan den preso honen egoerarekin, eta adineko presoek etxean egon beharko luketela nabarmendu du.

Aieteko konferentzia eta ETAren jarduera armatuaren amaiera gertatu zirenetik lau urte igaro arren, "horrek ez du ekarri estatuen aldetik inolako erantzunik, eta horrela ikusten dugu nola dispertsioak bere horretan jarraitzen duen, preso larrien egoera okertzen (ikusi Ibon Iparagirre), epaiketa berriak (Zinkunegi tarteko), lege atzerakoiak asmatzen…", dio Sarek.

"Gatazkak samin eta sufrimendu sakonak utzi ditu alde guztietan, baina inola ere ezin da onartu preso eta exiliatu politikoekin gertatzen ari dena. Gatazkaren konponbidearen parte bat da haien ondorioak ere konpontzea", plataformaren arabera.

Oraingo egoera "guztiz berria" bada ere, presoekin "krudelkeria osoz" lehengo politika berberak aplikatzen dituztela salatu du Sarek.

Horregatik, hilaren 27an, 20:00etan Kalegoen plazan egingo den kontzentrazioan parte hartzeko deia egin die herritarrei.



# "Umeei ume izaten utzi behar zaie: jostailuak disfrutatzeko dira"

## ITSASO PAGOAGA JOLAS ETA JOSTAILUETAN ADITUA

**Itsaso Pagoagak (Arrasate, 1985) irakasle ikasketak egin eta jolasari buruzko edukiak landu, aztertu eta zabaltzea du gustuko. Elgoibarren jostailuei buruzko hitzaldia egingo du azaroaren 24an, 17:30ean, Musika Eskolako auditorioan. Jostailu motak, umeen garapen etapa bakoitzeko jolas beharrak, euskarazko jostailuak, publizitatea, sexismoa eta jostailuak... izango ditu hizpide. Jostailuak aukeratzeko argibideak ere emango ditu.**

- IRATI AGIRREAZALDEGI -



**◆ Zein izan daiteke jostailu egoki bat?**

Pertsona bakoitzak dauzkan ezaugarrien araberako jostailua bilatu behar da. Ume bakoitzak garapen etapa bakoitzean behar ezberdinak ditu, baita gustu, zaletasun eta trebeziak ere. Beraz, jostailua aukeratu aurretik jasoko duen pertsona ezagutu behar dugu.

**◆ Umeek telebistan edo dendetan ikusitako jostailuak eskatzen dituzte. Betetzen dituzte jostailu onen ezaugarriak?**

Telebistan iragarritakoak soinu, argi, ahots... asko dituzte. Erositakoan ez da erreala. Beraz, umeari ulertarazi behar zaio telebistan agertzen den guztia ez dela egia. Bestalde, balore eta edukietan eskasak izan daitezke, estereotipo konkretuetara bideratzen dituztelako. Umeak itsu-itsuan horrelako jostailu bat nahi eta hori erosi arren, helduak jostailu hori hezitzaile bihurtu behar du. Umeekin gaudenok egiten dugu jostailu bat egokia izatea ala ez. Jendeak jostailu hezitzaileak eskatzen ditu. Agian izan liteke matematika lantzeko egokiena, baina bakarrik jolasean ari bada ez da hezitzailea. Beti kontuan hartu behar da garestiena ez dela onena ezta merkeena txarrena ere.

**◆ "Umeek ez dute behar guk eurak entretenitzerik askatasuna behar dute euren buruak neurtzeko" (Gema Cotallo). Beraiek sentitzen dute, ordea, jostailuen beharra.**

Behar hori asetzeko umeak ez du behar erositako jostailu bat. Umeak gaitasuna du sortzeko eta etxean daukan edozein objektu, egurrezko goilara bat adibidez, gaur izan daiteke txotxongiloa, bihar hegazkina... Gure esku dago inguruak eskaintzen dituen baliabideak umeei libre erabiltzen uztea. Modako jostailua erosi nahi dugun arren, pertsonak badauka nahikoa gaitasun jostailuak sortzeko. Kartoizko kaxa batekin egin daiteke garbigailu bat edo galtzerdiekin txotxongiloak. Gakoa da gutxi eta ona erostea, sortzea eta umeekin jolastu edo berekin jolasteko denbora eta lagunak eskaintzea. Umeei ume izaten utzi behar zaie: jostailuak disfrutatzeko dira eta gero zerbait ikasi badaiteke hobe eta lagunekin bada zer esanik ez.

**◆ Garai bateko jolasak erabiltzen dira?**

Aurten modan egon dira tronpak, baina plastikozkoak, argidunak... egurrezkorik ez dago. Mikado jolasa [makiltxo estuak] sekulako prezisio jolasa da familia guztiak jolastekoa. Lehengo jolasak berreskuratzeko Urtxintxak kale jolaserako kit bat egin du eta aukera ematen du jolasen kulturaren transmisioa egiteko. Euskarazko jolasetan aukera gutxi daude Euskal Herrian jostailu ekoizle gutxi dagoelako, elkarteek egiten dituzte eta ez dira espreski hortan jarduten. Kanpokoek ere ahalegin gutxi egiten dute.

**◆ Orain zer dago modan?**

Iaz, Alemanian, jostailuen feria batean egon nintzen eta indar handiz sartu dira. 8-12 urte artekoenko dronak. Kate handietako katalogoetan agertu dira. Nik materialetan jartzen dut arreta: naturalak, egurrezkoak, plastikozkoak birziklatuak badira hobeto eta nik gehien gomendatzen ditudanak mahai jolasak dira familian jolasteko aukera ematen dutelako.



Zuen kexak, galderak edo txaloak bidaltzeko: ***barren@elgoibarkoizarra.eus* - 943 744 112**



**Urasandiko skate parkea konpontzeko beharra**: "Skatean ibiltzen garen gazte koadrila bat gara eta Urasandiko skate parkea egoera txarrean dagoela iruditzen zaigu. Beraz, eskatu nahi genuke konpontzea edo berritzea". Bestalde, patineteetan ibiltzen diren haur batzuk ere kexatzera etorri dira. "Kalegoen plaza inguruan ibiltzen gara patineetetan eta beste espazioren bat beharko genuke. Izan ere, plazan jende asko ibiltzen da eta elkarri traba egiten diogu. Beraz, proposatzen dugu gu ibiltzen garen gunea bereiztea –hesiren batzuekin-edo–, bestela Urasandikoaren antzerako skate gune bat egitea herri erdigunetik gertuago".



**Bazter babesak Sallobente auzoan**: "Sallobenteko auzo alkate Ioseba Arrizabalagari eskerrak eman nahi dizkiot gure eskariari kasu egin diolako. Pinu sail handi bat bota ostean, amildegi handia bistaratu zen Sallobente auzoko gure baserrirako bidean. Bazter-babesak jartzeko eskatu genion auzoko alkateari, eta jarri dituztela ikusita, eskerrak eman nahi genizkioke. Izan ere, orain, autoan etxerako pistan goazela segurtasun handiagoa sentitzen dugu. Hesiak jarri aurretik bazirudien bazterrera jausteko arriskua genuela. Horrelako bideetan babesa beharrezkoa dela iruditzen zait eta kasu honetan jarri dute".

**Udal Txistulari Banda Pedro Muguruzara**: "Pedro Muguruza kalean bizi garen senar-emazteak gara, eta Elgoibarko Udal Txistulari Banda txalotu nahi dugu, urriaren 11ko kalejiran gure kaletik ere pasa zelako. Hemen bizi garenetik ez dugu horrelakorik gogoratzen, eta benetan poztu ginen. Bide batez, esan nahi dugu Elgoibarko herria ez dela Maalan hasi eta Kalegoen plazan amaitzen; aurretik eta ondoren dauden kaleak eta etxeak Elgoibarkoak dira, eta besteak bezala ordaintzen ditugu Udal-zergak. Eskerrik asko, berriz ere, Udal txistulariei, eta hurrengoan ere pozik irtengo gara balkoira zuen txistu-hotsa entzundakoan".



*Pilar Bernedo Lariz*

***Zenbat kantu zenbat kontu***
***zure magalean.***
***Zenbat une Altzolan.***
***Langilea, kementsua,***
***irribarrea soinean.***
***Ama, amama paregabea,***
***beti gure aldamenean.***
***Zure hitzen melodiak***
***iraungo du gure bihotzean.***

2015eko azaroaren 12an hil zen.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

# "Bandan jotzeko ezinbestekoa da afizioa, bestela ez du merezi"

## LUIS MARI ZUBIAURRE LODOSO KLARINETE-JOLEA

**Ondo dantzatzen dakienak musika gutxi behar omen du. Luis Mari Zubiaurre Lodosoren pausoak, ordea, musikaren alderdira joan dira txikitatik. 12 urterekin hasi zen Elgoibarko Udal Musika Bandan eta musikarien zaindari den Santa Zezilia Egunaren aitzakian egingo duten kontzertuan omendu egingo dute mende erdia herriko bandan eman duen klarinete-jolea. Sehaskatik datorkio musikarako zaletasuna, eta sasoiak eusten dion bitartean bandan jotzen jarraituko du. Izan ere, aita eta anaiak musikari izan arren, banda bera ere familia modukoa dela aitortu digu. Mingaina dantzatuz kontatu digu bere musikari bizimodua.**

- IRATI AGIRREAZALDEGI -



**◆ Nola hasi zinen musika ikasten?**

Etxean, aitarekin. Aita, Jose Zubiaurre *Balle*, Udal Musika Bandako zuzendaria zen, eta hiru anaiok hasi ginen musikan. *Solfeo de los solfeos* metodoa ikasten, gero musika tresna jotzen eta praktikak dantzaldietan egiten genituen. Nik tronpeta jo nahi nuen, baina klarineteak falta ziren bandan eta aitak klarinetea jo dut.

**◆ Musika Bandan nola sartu zinen?**

Aita bandako zuzendari zela, nik delineazio ikasketak egin nahi nituen Armeria Eskolan, Eibarren. Aitak esan zidan autobuseko bidaiak ordaintzeko bandan jo beharko nuela. Hala egin nuen eta bandako propinekin parra egiten nuen.

**◆ Gaztetxo hasi zinen bandan. Orduan maila altua eskatzen zuten?**

Garai hartan, ez. Musikari falta zegoenez, piska bat jotzen jakinez gero, barrura. Gaur egun exijentzia handiagoa da. Fenomenoak ez daude, lan egin behar da. Gure kasuan lana domeka arratsalderoko dantzaldiak ziren.

**◆ Dantzaldiak nork antolatzen zituen?**

Udalaren kontratuan zeuden domeketako dantzaldiak. Orduan pixka bat tristea zen Udalak ez baitzuen banda baloratzen. Gerora hainbat ordezkarik jarri zuen interesa. Hasieran joaten zen jendea, baina dantzalekuak ireki zituztenean gutxiago. 18 urte inguru nituela bukatu ziren, eta horrek niri sekulako askatasuna eman zidan. Izan ere, lagunak jai giroan ikusi eta gu plazan egon beharra…

**◆ Gogoan al duzu zure lehen saioa bandarekin?**

Bai. Aste Santuko prozesioa. Ohituta geunden eserita jotzen eta, egun hartan, tente, jendea begira, nekatu eta urduritu egin nintzen. Hori bai, praka motzekin, kopetan ilearekin eta tripa gabe nengoen.

**◆ Bandan hasi zinenetik hona egon dira aldaketak, ezta?**

Zuzendariak nik hiru pasatu ditut: gure aita, Jose Zubiaurre *Balle*, Jose Antonio Osoro *Katxo* eta Txomin Mujika.

Jendea ere asko pasatu da eta izan da laga duenik ere, aspertuta, lanarengatik, ezkondu eta kanpora joan direlako… Beste batzudek urte askoan jarraitzen dute.

Uniformeak ere aldatu ditugu. Gogoan dut Mutrikura joan ginela jotzera eta Udalak esan zuela uniformea erosi behar zuela, zer izango eta txapel bat. Gero, 1974an, nire ustez oso zatarra zen bat ekarri zuten, jantzi beharreko txapelekin militar itxura genuen. Oraingoa behintzat traje bat da, gorbata beltzarekin eta txapelik ez dugu erabiltzen, alde ederra.

Musika ere pila bat aldatu da. Lehen ohikoena zen oberturak eta zartzuelak jotzea. Gaur egun, zartzuelak noizean



*Balle familia: aita, bandako zuzendaria, atzean hiru semeak dituela: Jose Angel, Luis Mari eta Bitor klarinete-joleak*

behin baino ez ditugu jotzen, pieza modernoagoak dira oraingoak. Nik nahiago ditut berriak, dirdira berezia dute, bandarako ondo eginak daude. Izan ere, askotan, oberturetan, orkestratik bandarako transkripzioa ez zen batere txukuna. Batzuk bere horretan pasatzen zuten kontuan hartu gabe atzeko lana behar duela horrek eta hori ere artea da. Milatik gora izan dira bandak jotako piezak: pasodobleak, kalejirak, oberturak… Niri berritzea asko gustatzen zait eta Txomin Mujikak eta Gorka Mujikak Bilbotik partitura berri mordoa ekartzen dituzte. Pieza bereziak dira eta guretzat erronka handia da horiek jotzea. Pieza mordoa behin jo eta artxibora joaten dira.

**◆ Kontzerturik bereziena zein izan da?**

Aitaren omenaldia. Bestalde, Juan Cordero militar eta musikari elgoibartarrak konposatutako *Kontzejupe*, pieza estreinatu genuen kontzertua ere berezia izan zen.

**Herritar askok beti estimatu du banda.**

Bai, gaur egun gehiago. Emanaldi batzuetan bete egiten da Herriko Antzokia: negu partean, Gabonetan, Santa Zezilia… Joaten dena, gainera, beti jende bera izaten da eta toki bertsuetan eseritzen dira. Gehienetan pieza alaiak jotzen ditugu. Zailak ikasten denbora asko pasa eta gero jendeak ez ditu hainbeste estimatzen. Beraz merezi du pieza errazagoak jo eta jendeari gustatzea.

**◆ Zer eman dizu Udal Musika Bandak?**

Asetasuna eta poza. Pieza zailak jotzen ditugunean batez ere. Lagunak ere asko eman dizkit. Beste banda batzuetan ez bezala gurean lagun giro polita dago. Ohorezko matrikula emango nioke bandari. Kategoriako jendea dago, zuzendariak ere hala dio. Niretzat musika zaletasun galanta da. Bandan jotzeko ezinbestekoa da afizioa, bestela ez du merezi. Bestela lana da, derrigorrezkoa. Partaideon artean koadrila txikiak egiten dira eta entsegu ostean kafea hartzera joaten gara, afariak ere egiten ditugu… Kostata biziko nintzateke musikarik gabe. Etxean ere askotan ordenagailu aurrean jartzen naiz piezen bila eta gustatuz gero zuzendariari esaten diot guretzat egokia izan daitekeela eta batzutan ekartzen ditu partiturak.

**◆ Bandarekin bizi izandako anekdota bitxirik ere izango duzu, ezta?**

Gogoan dut hasiberritan Eibarko zezen plazara joan ginela Eibarko Bandakoekin batera zezenketan jotzera. Hiru ziren toreroak plaentxiar bat, ermuarra bestea eta Elgoibarko Vazquez, Felipe Palacios bandako musikaria ahaldun eta Gerardo *Katalo* banderillero zituela. Zozketan Vazquezek zezen fin eta altua aukeratu zuen beste lodi eta txikien artetik. Zezenketa hasi orduko Vazquezek sekulako paseak egin zituen belauniko eta jendea ikaratu ere egin zen. Zezena hiltzerako, ordea, 9-10 aldiz harrapatu zuen toreroa. Banderilleroak ez zizkion banderillak gogor sartzen eta toreroak ezpata ere ez. Erabat zulatu eta bukaeran ezkutalekutik hil zuten sastakaiarekin. Emanaldi berezia, bitxia izan zen guretzat, bandan jotzeaz gain gustura ikusi genuelako zezenketa. Elgoibarko Manolak ere Maritxu Osororen kabrioletean joan ziren.

**◆ Noiz arte bandan egoteko asmoa?**

Ez dakit. Lanean gutxi gorabehera martxoan hartuko dut erretiroa, baina bandan oraingoz ez. Fisikoki ondo nago eta ahal dudan bitartean jarraituko dut. Seme-alabek ez dute nire bidea jarraitu bandan eta niri hasieran horrek pena eman zidan. Semeak lehenago ez hasi izanaren pena dauka orain. Ilobek jarraitzen dute bandan eta kontzertuen ondoren berekin ere elkartzen naiz. Bandan horrelako giroa izanda nola utziko dut ba? Futbola adin batetik aurrera ezinbestean utzi behar da, baina guk musikariak izanda zorte handia daukagu. Jende asko ezagutzeko aukera ere eman dit musikak, esaterako, RTVEko orkestra sinfonikoko klarinete jolea eta Bilboko bakarlaria.

Txarangan sortzaileetako bat izan nintzen, baina 28 urterekin utzi nuen. Txaranga kontuak ere adina dauka, gaztea izan behar da han jotzeko. Jende gazte asko sartu da bandan eta hori denborarekin sumatzen da. Gazte batzuk, hasieran, obligazio modura hartzen dute bandako kontua, baina gero gustura gelditzen dira. Gazte askok txaranga dauka buruan, baina hori ere pasatzen da.

**◆ Santa Zezilia Eguna berezia al da**

Askorentzat Txiki Eguna den bezala, niretzat musikari naizen heinean Santa Zezilia Eguna berezia da. Kalejiratik hasi, kontzertu berezia eta gero ospatzeko bazkaria izaten dugu eta baita luzatu ere. Aurtengoa are bereziagoa izango da, ez nuen uste hainbeste urte egingo nituenik bandan, nahiz eta ezagutu ditudan 50 urte bete dituzten bandako beste kide batzuk ere.

*Luis Mari, RTVEko orkestrako klarinete-jolearekin eta Bilboko bakarlari batekin.*



# Ideietatik ekintzetara



**Ideia bat gauzatu ezean, buru barruan preso geldituko da, proiektu bihurtu ezinda. Burmuineko zirkuituetatik atera eta praktikara eramateko ahalegina egiten dute ekintzaileek. Zailtasun nabarmenak izaten dituzte, baina, industria alorreko proiektuen kasuan batez ere: lokalak eta makineria garestiak dira eta finantzazioa, eskuraezina. Gazteen kasuan zailtasunak areagotu egiten dira. Aldi berean, hemengo industriak ideia berrietatik abiatutako proiektu berriak behar ditu, sasoi berrietara egokitzeko. Horrexegatik TKgune Fabrikazio Sariak gazteentzako enpresa industrialen ideia lehiaketari ekin zion iaz. Lehiaketaren bigarren edizioko sariak aste honetan banatu dituzte Elgoibarko udaletxean. Mikel Zubieta etxalartarrak irabazi du enpresa-industrial ideiarik onenaren saria, bizikleten platerak aldatzeko sistema hobetu lezakeen proiektua aurkeztu ondoren. Irungo Mikel Calderon berarrak, berriz, Lanbide Heziketako ikasle ohiaren enpresa-industrial ideia onena lortu du metaleko 3D inpresoen bidez injekzio-moldeetarako zerbitzuen inguruko proiektua landu baitu.**

- Oier Narbaiza -

Ekintzaile industrialek azken urteotan proiektu gutxi samar garatzen dituzte. Gai honekin kezkatuta dabiltza IMHn eta ekintzailetasuna sustatzeko asmoz antolatu dute ideia lehiaketa, TKgune Sareko beste ikastetxeekin batera. Gazteentzako proiektu industrialen ideia lehiaketako bigarren edizio honetan, lehenak 2.500 euroko saria eskuratu du eta ideia garatzeko 40 orduko formazioa. Horrez gain, proiektua garatzeko 100 ordu erabili ahal izango ditu aholkularitzan eta beste 300 ordu baliabideak erabiltzeko (makinak, laborategiak...).

Lanbide Heziketako ikasle ohiaren enpresa-industrial ideiarik onenak 2.000 euroko saria eta prototipo eta negozio eredua garatzeko aholkularitza eskuratu ditu.



## Imanol Calderon - Ingeniari teknikoa



**SARIA:**
LHko ikasle ohiaren enpresa-industrial ideiarik onena

**PROIEKTUA:**
Metaleko 3D inprimagailu bidez injekzio-moldeetarako zerbitzuak eskaintzea

Hiru dimentsiotako inprimagailuek erabateko aldaketa ekarri dute produktuak fabrikatzeko prozesuetara. Imanol Calderon berarrak, plastikoan inprimatzen aditua da. Geometria eta forma bereziko piezak sortzeko momentuan, 3D inprimagailuen aurrerapenak ondo ezagutzen ditu.

Orain arte, plastikozko piezak egiteko, inprimagailuekin lan egin du Imanolek, batez ere diseinu alorrean. Teknologia berri honek dakartzan abantailek txundituta laga dute: ikaragarrizko aukera ikusi du inprimatzeko sistema berria metalera aplikatuta. "Metalezko piezen fabrikazioa nabarmen optimizatu daiteke 3D motako inprimagailuaren bidez", bere iritziz.

Metaleko 3D inprimagailuen bidez injekzio-moldeetarako diseinu eta fabrikazio zerbitzuak eskaintzen duen enpresa sortzeko proiektuari eman diote Lehen Hezkuntzako ikasle ohiaren enpresa-industrial ideia onenaren saria. Fabrikazio-teknika honen bidez, postizoak hozteko optimizazioa lortu nahi du. 3D inprimatzeari esker, lehen ezinezkoak ziren mekanizatzeko formak eta injektatzeko materialak lortzen dira.

*"Metalezko piezen fabrikazioa nabarmen optimizatu daiteke 3D motako inprimagailuaren bidez"*

Irungo Bidasoa Institutuaren laguntzaz, Fast3D Bidasoa enpresa martxan jarri zuen Imanolek. Plastikozko gaiak inprimatzen dituzte bertan. Lehenik, martxan duen enpresa sendotu nahi du eta gerora begira metalezko gaiei heltzea gustatuko litzaioke. Era honetako teknologia oso garestia da, baina. 400.000 eurotik gorako prezioa izan dezake metala inprimatzeko makina batek. Beste makina horiekin lanean ari den norbaitekin lankidetzan jardutea gustatuko litzaioke Imanoli. Diseinu alorrean pilatu duen jakintza eta esperientzia izango litzateke bere ekarpena.

## Mikel Zubieta - Ingeniari industriala



**SARIA:**
Enpresa-industrial ideiarik onena.

**PROIEKTUA:**
Bizikleta-transmisioan plateren desbideratzailearen portaera eskasa hobetzeko sistema mekatronikoa proposatzen du.

Ingeniari honek bizikletan ibiltzeko afizio handia izan du beti. Bizikletaren platerak aldatzeak eragiten dituen arazoez aspaldi jabetu zen, eta zerbait egin beharra zegoela erabaki zuen.

Kontua da bizikleten platerak aldatzeak makina bat arazo sortzen dizkiela txirrindulariei. Bi plater eta 11 pinoiko bizikleta batean, teorian, 22 abiadura edo konbinazio posible daude. Praktikan, baina, hamahiru baino ezin dira aprobetxatu, muturreko konbinazioak ezin izaten baitira erabili: plater bat erabilita, zazpi edo zortzi pinoi txikienak erabili ahal izango dira; eta beste platera erabilita, zazpi edo handienak.

"Azken urte hauetan sortu da joera berri bat plater bakarreko mendiko bizikletak egiteko, piñoi gehiagorekin. Horrek agerian uzten du desbideratzailea ez doala ondo", adierazi du. Mendikoetan, akaso, baina errepidekoetan ez du uste arrakasta izan dezakeenik plater bakarra jartzeak, aukerak murrizten baitira.

Mikel Zubietak garbi du plateren desbideratzaileak portaera hobea izan beharko lukeela. Muga hori gainditzeko lanean jardun du azken hilabeteetan.

*Bizikleten platerak aldatzean, ezin izaten dira aukera guztiak aprobetxatu. Mikelek sistema hori hobetu nahi du*

Gama altuko bizikleten kasuan kanbio elektronikoak jarri dira, platerak eta pinoiak aldatzeko, baina mekanikoki antzeko sistema bera erabiltzen da. Horrek ez du, beraz, arazoa konpondu.

Mikelen arabera, mekatronikaren eskutik etorri daiteke hobekuntza. Diziplina honek mekanika, elektronika, kontrola eta informatika integratzen ditu. Mekatronika bizikletan orain dela gutxi hasi dira aplikatzen. Mekatronikan aukera handiak ikusten ditu etxalartar honek bizikletak hobetzeko.

Mikelek Eibarko Teknikerren egiten zuen lana eta orain urtebete lagatzea erabaki zuen proiektu honetan buru-belarri murgiltzeko. IMHko atea jo zuen eta ikastetxe horretan lortu zuen aholkularitza eta laguntza. Ideia lehiaketara aurkezteko proposatu zioten.

Hemendik aurrera, Mikelek denbora eta lana beharko ditu bere ideia gauzatzeko. Sariaren bidez, prototipoaren zatirik garrantzitsuena garatzeko aukera izango du. Oso argi dauka hemendik aurrerakoa: "Garbi daukat nolakoa izan beharko litzatekeen lehen prototipoa". Prototipoaren ostean, pedalkada gogorreko beste etapa batzuk egin beharko ditu (patentatzea, merkaturatzea…).

# Azaroaren 21ean egingo dute 'Beitxu, beitxu!' kantuan oinarritutako lip-dub-aren entsegua

Aitor Novaren musika eta Uxue Alberdiren letra dauzkan *Beitxu, beitxu!* abestia oinarri hartu eta bideo kamera mugikorrarekin  Maalatik kalegoen plazara arteko ibilbidea grabatuko dute azaroaren 28an herritarrek eta elkarte zein erakundeetako ordezkariek lip dub bat eginez.

Elgoibarko 365 ekimeneko talde eragilearen helburua da elgoibartarron euskalduntasuna aldarrikatzea. eta euskaldunak izan nahi dugula esateko beste modu bat da.  Aurtengo ekimenari ezaugarri batzuk jarri zizkioten  eta horiek betetzen saiatu dira: parte-hartzailea izan behar du; aldarrikapenak ludikoa izan behar du, jai itxurakoa; eta kalean ospatu behar dute, plazan.



*Aste honetan egindako entsegu bateko irudia.*

## Maalatik Kalegoen plazara

60 elkarte eta erakundetako ordezkariek hartuko dute parte, batez beste elkarte bakoitzetik 15 kidek, 900 guztira. Horiez gain, gainerako herritarrek ere lip-dub-arekin bat egiteko aukera izango dute Maalan, hasieran; San Frantzisko iturrian; eta Kalegoen plazan. Jende guztia Kalegoen plazan bildu behar da, lip-dub-a plazara iristen denerako. Kalegoen plazan izango da jai amaiera.

Grabaketa azaroaren 28an egingo bada ere, entsegua egingo dute hilaren 21ean. 14:00etan hasi arren, elkarte eta erakunde bakoitzeko ordezkariak 13:30ean azaldu behar dira dagozkien tokira. 28an, berriz, 13:00ean hasiko da lip-dub-a, eta ordezkariak 12:30ean egon behar dute bere lekuan.

---

## Jasone Osororen azken liburua izan da hizpide Epeletan tertulian

Eguraldiak hotzera egin bitartean, Epeletan literatur tailerraren saioa izan da Gotzon Garate Udal Liburutegian. Jasone Osoro idazle elgoibartarraren *12etan bermuta* izan zuten hizpide irakurzaleek Danele Sarriugartek koordinatuta. Idazlea berak ere hartu zuten parte literatur tertuliako ohiko 10 parteiderekin. Galderekin eta azalpenekin gustura aritu ziren irakurzaleak, liburua egilearekin komentatzeko aukera izan baitzuten.



## Markel Garate mendaroarra irabazle Euskararen Eguneko esaldi lehiaketan

Euskararen Eguneko esaldi lehiaketa antolatu zuten DBH eta Batxilergoko ikasleentzat Atxutxiamaikak eta Gaztelekuak Elgoibarko Udaleko Euskara sailaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin. Markel Garate mendaroarra izan da irabazlea Nik hasi zuk jarraittu esaldiarekin. Lelo hori Euskararen Eguneko kamisetarako baliatuko dute.



# Emakumeen aurkako indarkeria salatzeko ekitaldiak datorren astean




Azaroaren 25ean Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna izanik hainbat ekintza antolatu ditu Elgoibarko Emakumeen Kontseiluak, besteak beste hainbat kultura saio. Batetik Iceberg irudia erabiliz, kartel, whatsapp eta sare sozialen bidez mezua zabalduko dute. Bestalde, Institutuan eta Ikastolan, 304 neskak eta 286 mutilek genero indarkeriaren prebentzio tailerrak egingo dituzte. Indarkeria matxistaren kontrako hausnarketa landu, harreman berriak sortzeko oinarriak jarri eta harreman afektibo sexualak ere izango dituzte aztergai.

Gaztelekuak ere aktiboki hartuko du parte kanpainan puntu morea jarriz eta kontzentrazioan parte hartuz. Horrez gain, emakumeen aurkako indarkeriaren inguruko erakusketa egin, *Beldur Barik* lehiaketara aurkezten diren lanak aztertu, abesti sexisten bideoklipak eta letrak hausnartu, whatsapp tailerra egin, pegatinak diseinatu eta sare sozialetan zabalduko dituzte.

## Ipuinak eta bideoa

Azaroaren 20rako, Haizea taldeak *La verdad de Soraya M.* filma emango du Kultur Etxean 21:30ean Loredi Salegiren gidaritzapean eta emakumearen aurkako biolentzia izango du gai nagusi. Azaroaren 26an, berriz, Maider Galarzak ipuin ez sexistekin ipuin saioak egingo ditu *Ipuinak mara-mara* izenpean Udal liburutegian 17:00etan 17:30ean.

Ekitaldi nagusia, berriz, azaroaren 25ean izango da. 19:00etan Kalegoen plazan elkarretaratzea egingo da Elgoibarko Emakumeen Kontseiluak deituta eta egunerako propio prestatutako idatzia irakurtzeaz gain, Beinke bertso eskolakoek abestu eta Gaztelekuko gazteek berek egindako pegatinak banatuko dituzte.

## Santa Zezilia gogoratuz asteburu eta astelehenean

Azaroaren 22a da Santa Zezilia, musikarien zaindariaren eguna. Ostiral goiz eta arratsaldean musikari gaztetxoen kalejirak izan ondoren, Elgoibarko Udal Musika Bandak domekan, Santa Zezilia egunean, 09:45ean kalejira egingo du eta 12:30ean kontzertu berezia eskainiko du Herriko Antzokian. *Eduardo Borras* pasodoblea, *Appalachian Overture*, *Rock Symphonie*, *Old Comrades* eta *Danzon N°2* joko dituzte. Horrez gain astelehenean, hilaren 23an, trikitilariak arituko dira 18:30ean, eta ondoren, 19:00tan kontzertua izango da Musika Eskolako auditorioan, baita diploma banaketa ere.

## 'After Thomas' filma eta Nuala Gardnerren tertulia

Anateusk elkarteak eta Udalak antolatuta, *After Thomas* filma eskainiko dute azaroaren 26an Herriko Antzokian. Nuala Gardnerek idatzitako *A Friend Like Henry-liburuan* oinarritutakoa da filma eta bere seme Daleren bizimodua du hizpide. Autista da eta Nualak berak seme autista bat izatean dituen ezintasunak eta trabak gainditzeko eginbeharrez ere hitz egiten du. *Henry* da Dalen txakurra, bere lagun eta irakaslea. Filmaren bitartez autismoa bezalako gai bat lantzeaz gain, Nuala Gardner bera ere izango da emanaldian. Autismodun umeek heldutan ere autismoa dutela azaltzeko eta egoera hori jendaurrean azaltzeko idatzi zuen liburua eta Elgoibarren ere autismoari buruzko okerreko usteak argitzen saiatuko da.



# Iñigo Lariz eta Ainhoa Lendinez nagusi Karakateko maldetan gora

Emozio handiko amaiera izan zuen Karakateko 22. Igoerak, azken metrora arte ez baitzen argitu zeinek irabaziko zuen. Iñigo Lariz gailendu zen, esprint estu batean Julen Aranguena kortezubiarra mendean hartuta. Jarraian lortu duen laugarren garaipena da Larizentzat. 28:00ko denborarekin osatu zuen igoera, eta hortaz, ez zuen ondu iaz berak ezarritako errekorra (27:37). Iban Murua elgoibartarra sail-


Arg.: Morkaiko


Arg.: Soarte

katu zen hirugarren postuan, 28:32ko denborarekin. Emakumezkoetan Ainhoa Lendinez izan zen azkarrena, 34:34ko denborarekin. Nahia Quincocesek iaz ezarritako errekorretik (34:21) gertu geratu zen. Morkaikok Naomi Revert elgoibartarrari eman zion Aurpegi Onenaren saria. Guztira 88 lagunek hartu zuten parte aurtengo igoeran. Argazki guztiak, sailkapenak eta bideoa *www.barren.eus* web orrian.

## Alkortako hamargarren igoera jokatuko dute zapatuan Mendaron

Mendaroko ezker abertzaleak Alkortako X. Igoera antolatu du zapaturako (azaroak 21), euskal preso eskubideak aldarrikatzeko. 10:30ean hasiko da lasterketa, Herriko Enparantzan, eta izen-ematea ordu erdi aurretik egin beharko da, plazan bertan. Udaletxe aurrean hasiko da proba eta Alkorta baserriko atarian amaituko da.



## Olaizaga kiroldegiko muskulazio gela berritu dute

Olaizaga kiroldegiko muskulazio gela handitu eta berritu du Udal Kirol Patronatuak. Hainbat aparatu berri jarri dituzte: korrika egiteko zinta, polea bikoitza duen *Glide* izeneko aparatua; ezintasunen bat dutenentzat egokia dena, eliptika bat eta ispilu bat ere bai. Gela handitzeko lanetan eta erosi dituzten kirol tresna berrietan 13.000 euro gastatu dituzte.



# Igerilari elgoibartarrek emaitza onak lortu dituzte Eibarren



Elgoibarko igeriketa taldeko kideek Kirol Zehaztasun Ligako (KZL) lehen jardunaldian hartu zuten parte, joan den zapatuan, Eibarko Ipurua kiroldegiko igerilekuan. Emaitza onak lortu zituzten igerilari elgoibartarrek, eta horien artean, Iker Calvok bizkar estiloan lortu zuen lehen postua nabarmendu behar da. Proba berean hirugarren egin zuen Yeray Dobarrok eta laugarren postuan sailkatu zen Erlantz Plaza.

## Markel Bergara, txuri-urdin 2019ra arte



Markel Bergarak (Elgoibar, 1986) Realarekin lotuta duen kontratua berritu du hiru denboraldi gehiagorako, 2019ko ekainarenaren 30era arte. Honenbestez, sinatu duen kontratua osorik betetzen badu, 13 denboraldi osatuko ditu talde txuri-urdinean. Markel Bergarak Bigarren Mailan egin zuen debuta Realarekin, 2007an.

## 60 urtetik gorakoentzako spinning saioak

Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak 60 urte baino gehiagoko pertsonentzako egokitutako spinning saioak antolatu ditu. Talde bat edo bi osatzea lortzen badute, abenduan hasi nahi dituzte saioak. Astelehenetan edota eguaztenetan izango lirateke saioak, 10:15etik 11:00etara, Mintxetako spinning gelan. Jendeak proba dezan, doako saio berezi bat eskainiko dute azaroaren 26an, 10:15ean, Mintxetan.



## Emaitzak

**FUTBOLA**
Haundi 2 - Beti Gazte 1
Elgoibar 3 - Mutriku 0 (Erreg.)
Elgoibar 1 - Ilintxa 0 (Jubenilak)
Zumaiako 0 - Elgoibar 0 (A Kadeteak)
Anaitasuna 4 - Elgoibar 3 (B Kadeteak)
Elgoibar 2 - Bergara 1 (Oho. inf)
Urki 2 - Elgoibar 0 (Inf. Txiki)

**ARETO FUTBOLA**
Concepto Egile 2 - Xota B 5 (Naz B)

**SASKIBALOIA**
Viento Sur 36 - Atletico San Sebastian 48

**ESKUBALOIA**
La Rioja 28 - Lauko Elgoibar 15 (Senior emak.)
Alcorta Forging Group 30 - Eibar 25 (Senior giz.)
Ordizia 21 - Gabaz Elgoibar 35 (Sen. giz.)
Kukullaga 27 - Tecnifuelle 26 (Jub. mut.)
Tolosa 27 - Beristain Banaketak 32 (Jub. mut.)
Kukullaga 17 - Pneumax Elg. 19 (Kad. nesk.)
Casa Astigarraga 32 - Usurbil B 26 (Kad. nes.)
Bankoa Elg. 32 - Zumaia 26 (kad. mutilak)
Legazpi 11 - Deca Elg 30 (Kad. mut.)
Calari Pulpo 7 - Cometel Elg. 25 (Inf. neskak)
Federoptikos Ikus 8 - Dariobus 34 (Inf. nesk.)
Hotel Txarriduna 19 - Amenabar Zarautz 31 (Inf. mut)
Amenabar 11 - Murgil Elg. 33 (Inf. mut)

## Agenda

**FUTBOLA** (Mintxetan)
Zapatua, 21
10:00 Elgoibar - Anaitasuna (Oho. kad.)
12:00 Elgoibar - Lagun Onak (1. kadete.)
16:00 Elgoibar - Aloña-Mendi (Oho. inf.)
Domeka, 22
11:00 Elgoibar- Zumaiako (Aleb.)
12:15 Elgoibar – Arrasate (Aleb..)

**SASKIBALOIA** (Olaizaga kiroldegian)
Zapatua, 21
16:00 Viento Sur Elgoibar – Alde Zaharra B (2. probintzial maila)

**PILOTA** (Ikastolako frontoian)
Zapatua, 21
10:00 Lagunak – Altzatarra (Gomazko Paleta, Gipuzkoako txap.)

**ESKUBALOIA** (Olaizagan)
Zapatua, 21
10:00 Murgil - Amenabar C (Infantil mut.)
11:15 Beristain - Aloña (Jub. mut.)
17:45 Tecnifuelle - Zarautz (Jub. nesk.)
19:30 Pneumax - Zarautz (Kad. nesk.)
Domeka, 22
10:15 Cometel - Eibar B (Inf. nes.)
11:30 Dariobus - Kalari Taberna Pulpo (Inf. nes.)

**ESKUBALOIA** (IMHn)
Zapatua, 22
11:00 Pneumax - Errotaberri (Kad. nesk)
13:15 Astigarraga - EibarB (Kad. nesk.)
Domeka, 1
11:00 Elgoibar - Pulpo (Aleb. mut.)
13:15 Astigarraga - EibarB (Kad. nesk.)

## LANA

### Eskaerak

Adinekoak zaintzeko prest, orduka edo etxean bertan bizita. 602 107 411

Adinekoak eta umeak orduka zaintzeko prest. Gauez ere bai. 631 417 995

Garbiketa lanak egin eta adineko pertsonak zein umeak zaintzeko prest. 943 748 899 / 685 724 861

Garbiketa lanak egiteko zein adineko pertsonak zaintzeko prest. 638 338 816

Adinekoak zaintzen lan egiteko prest, etxean bertan bizi izaten. 631832 767

Adinekoak edo umeak zaintzen edo garbiketan lan egiteko prest, etxean bertan bizi izaten edo orduka. 632 229 972

LHko eta DBHko ikasleei eskola partikularrak emateko prest. 615 768 310

Sukaldari laguntzaile edo etxe, portal eta elkarteak garbitzen lan egiteko prest. 636 882 838

Nagusiak zein umeak zaintzeko edo taberna zein portalen garbiketa egiteko prest. Nagusi ezinduekin eta elbarritueekin esperientzia daukat. 631 562 380

Garbiketa lanak egiten ditut orduka. 637 102 725 / 943 744 033

Nagusiak zaintzen ditut etxean zein egoitzetan edo ospitaletan, arratsaldez zein gauez. Gida baimena daukat. 631 343 232.

Portalak garbitzeko prest. 617571210

Orduka edo etxean bizita lan egiteko prest, asteburuetan ere. 626 914 904

Adinekoak edo umeak zaintzen edo garbiketan lan egiteko prest. 631 748 977

Adinekoak edo umeak zaintzen edo garbiketan lan egiteko prest. 632 454 417

Adinekoak zaintzen edo garbiketan lan egiteko prest. 690 134 485

Adinekoak eta umeak zaintzeko edo garbitasun lanak egiteko prest. 685 771 734

Adinekoak edo umeak zaintzeko, plantxa egiteko, sukaldari laguntzaile lanerako edo portalak garbitzeko prest. 631 562 380

Garbiketa eta sukaldari laguntzaile lanetarako edo umeak eta adinekoak zaintzeko prest. Kalean zein baserrietan. 602 146 153

Umeak zein nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egingo nituzke. Orduka edo etxean bizita. Taberna eta portaletako eskailerak ere garbitzen ditut. 631 098 995

Auto eta kamioi mekanikari, soldatzaile, iturgin –ur instalatzaile karnetarekin– lanetarako prest. 602 343 815.

Garbitzaile, gozogile edo jostun lanetarako prest. 602 346 336.

Adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanetarako prest. 638 338 816.

Adineko jendea zaintzeko prest. 631 832 767

Adinekoak egunez eta gauez zaintzeko, sukaldari-laguntzaile edo garbiketa lanetarako prest. 637 074 529

24 urteko mendaroarra astegun arratsaldeetan haurrak zaintzeko prest. 646 738 095

Garbiketan edo ume zein adinekoen zaintzan lan egiteko prest. 632 889 041

### Eskaintzak

Doitze eta muntaia mekaniko lanetan ibilitako pertsona behar da. Bidali curriculum-a Zarauzko 309 Posta Kutxatilara.

## ETXEBIZITZAK

### Alokairua

Pertsona nagusientzako bereziki egokitutako etxebizitza eskaintzen dugu alokairuan. Erdigunean dago. 600 901 675

Familia batek bi logelako etxea hartuko luke alokairuan Elgoibarren. Gehienez 400 euro ordain ditzakegu. 637 207 806

Familia batek hiru logelako etxebizitza hartuko luke alokairuan Elgoibarren. 632 198 561

Etxe txikia hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. 632 175 172

Etxebizitza hartuko nuke alokairuan. 677 259 560 / 661 064 027

### Salmenta

Babes ofizialeko etxebizitza salgai Iñigez Karkizao kalean. Oso egoera onean, ia erabili gabea. 75 metro koadro, 3 logela, 2 komun eta altzariekin guztiz jantzia. Bizitzera momentuan sartzeko. Trastelekua eta garajea barne. 679 387 935 (arratsaldez-Leire).

San Bartolome kaleko eraikin berri batean etxebizitza salgai. Bi logela, egongela-jangela, sukalde zabala eta bainugela. 625 708 042

## GARAJEAK

### Salmenta

Garajea salgai Sigmako industriagunean, Antxustegi parean. 28 $m^2$ goiko ganbararekin. 651 525 602

## BESTELAKOAK

Lur saila erosi edo alokatuko nuke oilategiarekin. 943 740 318

Trio Jane Carrera aniversario salgai. Oso egoera onean. Kolorea: Urdin iluna. Grupo O kapazua eta aulkia, bakoitza bere zaku eta plastikoarekin salgai. 686 474 208

Tornuak egiteko tailer mekanizatua alokairuan ematen dut, erosteko aukerarekin. 670406748

Haurtxoarentzat Maxi-Cosi eta Bugaboo Camaleon beltza salgai (kapazoa eta aulkitxoa), osagarriak barne eta zakuak ere bai. Egoera onean. 500 euro. 665727979

Bigarren eskuko Venus 4 sport etxeko elbarrituentzako motorra salgai. 675 711 860

---



**P. M. Urruzuno kalea, 6 behea - Elgoibar**
**☎ 943 743 140 - rosapf@telefonica.net**

NORFO SL

**Behin betiko zortasun-orokor batek jabe bati eragiten badio honek ezezkoa eman diezaioke osatzeari?**

Bizilagunen komunitateetan legeak aurreikusten dituen zortasunak behin behinekoak badira ere, baliteke bizilagunen bilera batean adostea zerbitzu berri bat jartzeko erabakia eta horrek eragingo luke behin betiko zerga ezartzea jabegoari.

Kasu hortan legez etzetz esateko aukera izango luke legeak jarritako prozeduren bidez. Izan ere, bizilagunen komunitateak zortasuna jartzea eskatzen badu, eta jabeak ez badu jabeen batzordeak adostutako akordioaren aurkako ekintza judizialik azaltzen, akordioa irmoa da. Beraz, zortasuna ezartzea Zuzenbidearen aurkakoa izan baliteke ere, jabeak onartu duela esan liteke, ezezko hori idatzita lagatzen ez badu.

Arazoak eragiten dion jabeak eskubidea izango du gertatutako kalteak eta galerak bizilagunen komunitateak berari ordaintzeko, beti ere, egoera hori egiaztatzen badu. Kalte eta galeren ordaina emateko eskubidea, beraz, eragindako kalteen balio egiaztagiriaren araberakoa izango da.

***AHOLKUA: Arazoa zortasunak higiezinaren zati batean eragina duenean gertatzen da. Esaterako, terraza batean, hondamenik eragiten ez badu. Kasu hortan egiaztatu beharko litzateke okupatutako higiezin horren zati baten erabilera galtzeak izango lukeen kalte ekonomikoa.***

*__ROSA Mª PINTADO:__ Etxaldeen Administraziorako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749*

administradores



Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENeko bulegora, edo *barren@elgoibarkoizarra.eus* e-postara bidali.



Zorionak, **Dora**, astelehenean urteak beteko dituzueta. Familiaren partez.



Zorionak, **Elena**, astelehenean 5 urte beteko dituzulako. Muxu handi bat Jakesen, Markelen eta Jonen partez.



Zorionak, **Danel**, bihar 10 urte beteko dituzulako. Etxekoen partez muxu handi bat!



Zorionak, **Goizalde!** Gure printzesa txikiak urte bat bete du! Patxo handi bat aitatxo, amatxo eta Haizearen partez.



Zorionak, **Unax!** Igandean 3 urte beteko dituzu, txapeldun! Ondo pasa familiaren eta batez ere Malenen partez!



Zorionak, **Olatz!** 6 urte beteko dituzu igandean. Mila patxo pottolo etxekoen partez



Zorionak, **Dora eta Jose**, urrezko ezteiak beteko dituzuelako. Larunbatean ederki ospatuko dugu. Familiaren partez.



Zorionak, **Iban, Elene eta Aitor!** Azaroaren 15ean, 20an eta 23an zuen urtebetetze eguna izan zelako eta izango delako. Etxeko guztien partez zorionak eta muxu potolo-potoloa!

Erretratu bakarreko agurra: 4'50€. Argazki bikoitza: 7€.

Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak:15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra: 3'50€. Argazki bikoitza: 6€. Hirukoitza: 8€.

Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€

Argazkiak eguazten eguerdia (12:00etarako) baino lehen ekarri behar dira

BARRENeko bulegora,edo *barren@elgoibarkoizarra.eus* e-postara bidali.



## 20 BARIXAKUA

**18:00** Txaranga txikiaren kalejira. Musika Eskolan hasita.
**18:30** Odol-ematea. Mendaroko Ikastolan.
**21:30** Bideo forum-a: *La verdad de Soraya M.* Haizea. Kultur Etxean.

## 21 ZAPATUA

**Egun osoan** Mugikortasun iraunkorraren astea. Kaleak itxita motordun ibilgailuentzat. Azaroaren 29 arte.
**10:00-14:00** Bigarren eskuko azoka. Antolatzailea: Udala. Lekuederren.
**10:30** Alkortako X. Igoera. Mendaroko plazatik.
**11:00-13:00** Palestinako umeentzako material bilketa. Pablo Garrido. Maalako parkean.
**13:00** Kontzertua: Skaleak eta Ekaitza. Mendaroko gaztetxean.

## 22 DOMEKA

**9:45** Udal Musika Bandaren kalejira.
**12:30** Udal Musika Bandaren kontzertua. Herriko Antzokian.

## 23 ASTELEHENA

**18:30** Trikitilari, panderojole eta soinujoleen kalejira. Gero, kontzertua eta diploma banaketa. Musika eskolan.

## 24 MARTITZENA

**17:30** Hitzaldia: Nola aukeratu jostailu egokia? Hizlaria: Itsaso Pagoaga. Musika Eskolako auditorioan.
**18:00-20:00** Literatura tailerra: *La noche de los tiempos*. Antonio Muñoz Molina. Antolatzailea: Haizea. Gotzon Garate Udal liburutegian.

## 25 EGUAZTENA

**17:00-19:30** Jostailu erakusketa. Antolatzailea: Elgoibarko Izarra. Hilaren 27ra arte. Kultur Etxeko sotoan.

## 26 EGUENA

**17:00** Ipuin Kontalaria: Ipuin ez sexistak. Maider Galartza. Gotzon Garate Udal liburutegian. 17:00 (HH5) eta 17:30 (LH 1-2).
**17:00** Historia ikastaroa. Pello Arrieta. Antolatzailea: Haizea. Maalan.
**20:30** *After Thomas* filma. Nuala Gardner, autismoari buruzko idazlea, bertan izango da. Sarrera doan. Antolatzailea: Anateusk eta Udala.



*Rosendo Egurrola Fernandez de Jauregi*

2015eko azaroaren 10ean hil zen, 72 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.





XII. URTEURRENA

*Lorea Etxabe Azkue*

2003ko azaroaren 26an hil zen, 30 urte zituela. Haren oroimenez XII. urteurreneko meza izango da, eguenean, azaroak 26, arratsaldeko19:00etan Elgoibarko San Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi aldez aurretik eskerrak.

***Edur zurittan hazittako***
***lore gorrixa ziñan.***
***Urtu eraitten zendun***
***inguruko hotza,***
***eta bedarra hazi erain.***

***Ez dogu gehixago***
***zure berua igarriko,***
***baiña hementxe gerauko da***
***zure arnasian aztarnia,***
***botatako sustraixen gaiñian.***

Zure familia eta lagunak

## Zinea (Herriko antzokian)

**'Los miercoles no existen'**
20 Barixakua, 21:30
21 Zapatua, 19:00, 22:15 (VOS)
22 Domeka 19:00
23 Astelehena 21:30

**'Campanilla y la leyenda de la bestia'**
22 Domeka, 16:30

**'After Thomas'**
26 Eguena 20:30
(Doan)

## Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

### GUARDIAK

**09:00 - 22:00**

20 Barixakua BARRENETXEA
21 Zapatua IBAÑEZ
22 Domeka IBAÑEZ
23 Astelehena GARITAONANDIA
24 Martitzena ETXEBERRIA
25 Eguaztena FERNANDEZ
26 Eguena YUDEGO
27 Barixakua ORUESAGASTI

**22:00 - 24:00**
Astelehenetik domekara GARITAONANDIA

**24:00 - 09:00**
ELORZA (Eibar) Juan Gisasola, 18- 943 206 100

* Fernandez: Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro) - Tel.: 943 756 142
* Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze) Tel.: 943 751 638
* Oruesagasti: Kalebarren, 9 (Soraluze) Tel.: 943 751 384

## Urrian hildakoak

- **Jose Maria Perez-Cortes Pajuelo**
  91 urte, urriak 16
- **Anacleto Salaberria Gurrutxaga**
  92 urte, urriak 16
- **Carmen Arizmendiarrieta Astigarraga**
  95 urte, urriak 16
- **Blanca Maria Belaustegi Zuazo**
  60 urte, urriak 26
- **Jose Garayalde Etxezarreta**
  92 urte, urriak 28

## Urrian jaiotakoak

- **Yara Elshafey Mahmoud Ali Abotaleb**
  2015-10-01
- **Eneko Iturralde Arrizabalaga**
  2015-10-10
- **Nahia Cantos Rodriguez**
  2015-10-12
- **Gorka Olabarrieta Aurrekoetxea**
  2015-10-13
- **Emmanuel Aghedo**
  2015-10-14
- **Naroa Rekarte Txurruka**
  2015-10-18
- **Izar Arriola Alberdi**
  2015-10-23




ETXEBERRIA tanatorioa
Hileta zerbitzua osoa eta 24 ordukoa

KUTXAK, TRASLADOAK ETA KOROAK.
NORBANAKOEI ETA KONPAINIEI ZUZENDURIKO ZERBITZUAK.
ERIETXE ZENTRUETAN ZERBITZUAK

Santa Klara, 14 - 20870 ELGOIBAR
Telefonoak:
943 741 327 (24 orduz)
Sakelekoak: 635 756 295 / 629 635 203
www.funerariaetxeberria.com





**Julen Ansola**

**Eider Iriondo**



Gure herria zeharkatzen dituzten argi txuri eta argi gorriak. Suge formako argiak. Txuriek herriari, indarra, ilusioa, gogoa. Gorriak aldiz, sugegorri, pozoitsuak, arriskutsuak.

Bide onetik goazen susmoa dut. Norbanako eta elkarte askok dihardute urteetan lanean; euskararen aldeko izarra, emakumeen aldeko haizea, gure gaztetxoei kirol ezberdinen baloreak erakusten dizkieten kirol talde eta profesionalak, herriko merkatariak eta tabernariak bizirik irauteko antolatzen dituzten talde eta ekintzak eta zorionez beste hainbeste elkarte eta norbanako… denak ezin aipatu hemen.

Argi berde ugari zorionez.

Batzuetan, ordea, argi horiek indarra galtzeko edo itzaltzeko arriskua ere ikusten dut eta iluntasunera eramango gaituzten beldurra ere izaten dut.

Distira zaharrek izar berriak behar dituzte. Izar berrien beharra dugu gure esku dagoen herria eta bizitzeko nahi dugun herri hau eraikitzen jarraitzeko

Gure lana izango da izar berri horiei herrigintzaren garrantziaz jabearaztea, babesa ematea, laguntzea.

Laster izango ditugu gure kaleak kolore eta argi ezberdinez apaindurik, gabonak datozen mezulari. Gabon argiek, kaleek, tabernek, dendek… denek negu hotzari aurre egiteko argia emango diote herriari eta guk geuk ere sekulako hotza egiten duela ere berotu ditzagun herriko kaleak eta eman diezaiogun indarra herriari.

Bide ezberdinak ditugu herri honen argindar izateko, denek dute indarra, izar handi zein izar txikiz osaturik zeru izartsuak argitu dezatela gure herria.

Piztuta mantendu dezagun herria. Herri bizia. Geuria.

*"Piztuta mantendu dezagun herria"*

# Gremioen gida

Aroztegiak
Elektrizitatea
Igeltseritza
Iturgintza
Leihoak
Pintura

## AROZTEGIAK

**iraolagoitia**
aroztegia · altzariak · etxe-aldaketak
Kurutz-gain industriagunea, 9
20850 Mendaro
Tel.: 943 756 112 / 636 497 485
www.iraolagoitia.com

**IMAR AROZTEGIA**
Olaso industrigunea, 17 behea
943 531 471
609 054 978
carpinteriaimar@hotmail.com

**BIENA S.L. AROZTEGIA**
Ermuaranbide, 12-14-16
tel/fax. 943 743 116
www.biena.eus
info@biena.eus

**Aroztegia ASIMA Carpintería**
Ermuaranbide, 18 - Elgoibar
687 150 226
650 026 631
636 886 322
943 744 225
asimaaroztegia@gmail.com

**Ulazia**
AROZTEGIA ETA ENBALAJEAK
Albitxuri industrigunea, 1-O/ 1-P
943 740 547

## ELEKTRIZITATEA

**iparelek S.L. elektrizitatea**
Kilimon hiribidea, 1 - Mendaro
943 530 356
iparelek@gmail.com
iparelek@iparelek.com

**ELECTRICIDAD AZPELETA**
San Frantzisko, 51
Elgoibar
Tel.: 943 741 238

**CARRANZA, ELEKTRIZITATEA**
Uparitzaga 10, 6.B
Elgoibar
karranzayl@gmail.com
Tel.: 943 741 280
Jose Luis: 626 555 999

**electricidad PEROSANZ**
www.electricidadperosanz.com
eibar@electricidadperosanz.com
Ibergain 17, AC behea
Tel.: 943 202 268
Faxa: 943 206 045
20600 EIBAR
Herriko Enparantza 5
Tel.: 943 033 535
20850 MENDARO

**egoluz**
ELEKTRIZITATEA S.L.
(lehen TAES)
Ego-Gain, 9 AC
20600 EIBAR
Andres: 630 957 345
Raimon: 677 512 462
Bulegoa: 943 200 697

## IGELTSERITZA

**E. ARANDIA**
ERREFORMA ETA LEIHOAK
Urasandi, 22 behea - Elgoibar
Tel.: 605 705 204
Gremioen arteko koordinazioa.
Pladurrarekin ere lan egiten dugu.

**IGELTSERITZA CAMILO ALVAREZ**
Jardiñeta, 25 behea
EIBAR
Ernesto: 620 060 104
Fran: 600 465 789

## ITURGINTZA

**SANTANA**
Igor Santana
ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.
Urazandi kalea 17, behea
Elgoibar
943 740 530 / 605 714 905
santanaiturgintza@gmail.com

**PAGOERROTA ITURGINTZA**
Herriko Enparantza, 10 behea
MENDARO
943 75 60 44 / 628 529 692
Faxa: 943 75 60 37
pagoerrota@pagoerrotaiturgintza.com
www.pagoerrotaiturgintza.com

**ongi Iturgintza**
Pedro Muguruza Etorbidea, 11
ELGOIBAR
Tel.: 943 254 522
Faxa: 943 254 523
ongi@ongielgoibar.com
www.ongielgoibar.com

**FONTANERÍA Ibámar ITURGINTZA**
San Roke 10-A, behea B
Elgoibar
Floren Cid: 647 463 436
ibamar@euskalnet.net

**TELLABIDE ITURGINTZA**
Azpilgoeta 7 behea - Mendaro
Tel.: 943 755 062 / 607 755 062
iturgintzatellabide@hotmail.com

**ZUBIZARRETA instalazioak**
Ubitarte plaza, 5 behea
Elgoibar
943 740 789
650 586 144

**PAGOAGA S.A.**
BULEGOA ETA ERAKUSKETA
Pedro Migel Urruzuno, 8
Tel.: 943 740 512 / Faxa: 943 743 585
tienda@pagoagasa.com
www.pagoagasa.com
BILTEGIA
San Antolin, 13 - Tel.: 943 740 279
taller@pagoagasa.com
ELGOIBAR

## LEIHOAK

**LODOSO LEIHOAK**
SIGMA INDUSTRIAGUNEA, 223
lodosofj@gmail.com
Tel.: 943 74 34 90

## PINTURA

**BIOK dekorazioa**
Uparitzaga, 14 - Elgoibar
943 741 552
606 431 120
biok@biokdekorazioa.com

Gremioen gida

# JOSTAILUEN AUKERAKETA: ZER HARTU KONTUAN?

## AZAROAREN 24AN **HITZALDIA**

NOLA AUKERATU JOSTAILU EGOKIA? (ITSASO PAGOAGA)

17:30EAN MUSIKA ESKOLAKO AUDITORIOAN







3–14 URTE BITARTEKOENTZAKO

**JOSTAILUEN ERAKUSKETA ETA AZALPENAK**

KULTUR ETXEKO SOTOAN

AZAROAREN 26 ETA 27AN 17:00ETATIK 19:30ERA

ATXUTXIAMAIKA · Elgoibarko Ludoteka · ELGOIBARKO UDALA · GAZTERIA · elgoibar · Gipuzkoako Foru Aldundia · EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO